

Kaixo,

Oargi Mendi Elkarte, abenduaren hasieratik aurrera 2025eko federatu txartelen tramitazioak egiten hasiko da.

Txartelaren eskaera egiteko, ondoko orrian zure datuak idatzi eta Laboral Kutxaren kontuan dirua sartu. Ondoren, elkartean aurkeztu betetako orria eta diru sarreraren ordainagiria.

Internet bidez federatzeko aukera ere dago.

oargimendi@gmail.com helbidera bialduta.

Ordainagiria federatzen den pertsonaren izen abizenekin egon behar da. Elkartean eskudirutan bakarrik ordaindu daiteke.

Aurten euskal mendizale federazioko aplikazioan zuen txartel digitala eduki dezakezue.

Aurten, berrikuntza gisa, Marokoko estaldura Atlasen mendikatea izatetik Maroko osoarentzat izatera igaro da.

Haur eta Gazte kategorietako federatuek ere, guraso federaturen bat badute, % 50eko deskontua izango dute.

Bazkide kuotak: 20€ helduak eta onuradunak eta 65 urtetik gorakoak 10€,

Infantil eta gazteek ez dute bazkide kuotarik ordainduko.

2025ean euskal federazioko txartelarekin (FEDME gabe)

Asturias, Nafarroa, Aragoi eta Cataluiniako federazioek

gestionatzen dituzten aterpeetan deskontuak dituzu

www.correspondenciarefugios.org

Luzapena bakarrik ordaindu behar da federatu txartela egin ondoren luzapen bat egiten baduzu.

Aurten ez dira txartelak postaz bidaliko, klubetik pasatu behar da edo mugikorrean deskargatu txartel digitala izateko.

Jakinarazten dizuegu, federatuen prezioen barne dagoela 20€ euroko bazkide kuota. Beraz, Oargiko federatu oro Oargi Mendi Elkarteko bazkide da.

Bulegoko ordutegia: Astelehena ta Osteguna 19:00etatik 20:30etara.

Aurreko urtean bezala, gogorarazi nahi dizuegu irakurritako mendiko literaturako liburuak izanez gero klubari eman ditzakezuela, beste pertsona batzuek irakur ditzaten. Azkenik, gogoratu liburutegi zabala duzuela, ibilbideak kontsultatzeko, etab. Mendiko materiala ere alokatu ahal izango duzu. Materialaren eta prezioen zerrenda gure webgunean dago. Antolatzen ditugun irteera eta ekitaldietan parte hartzera ere animatzen zaituztegu.

Agur bero bat.

OARGI MENDI ELKARTEA

www.oargi.org 688698642 mugikorra info@oargi.org